

Araba a Punto strategiaren talde hausnarketari ekin dio nahi gabeko bakardadearen aurkako ekintza plan bat sortzeko

Gasteiz, 2021eko maiatzaren 28a. Eremu publiko, pribatu eta sozialeko eragileez osaturik dagoen Araba a Punto strategiaren talde eragileak bere lehen bilera izan du gaur goizean, eta bilera horrekin abiatu du lurraldean nahi gabeko bakardadearen aurkako ekintza plan komunitario bat sortzeko prozesua, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila buru duena.

Plan horren helburua da bakardadea detektatzen lagunduko duten ekintzak bilatzea. Era berean, laguntza eta baliabide komunitarioen bidez prebentzioa indartzea du xede eta, nahi gabeko bakardade egoera gertatuz gero, haren ondorio negatiboak arintzen laguntzea. Gainera, plan horren eraginaren lehentasuna landa eremuak izango du. Horrez gain, genero ikuspegia izango du argi eta garbi.

Araba a Puntoko talde eragilea hogeit hamar erakunde inguruk osatzen dute, eta horien artean nabarmentzekoak dira udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak, profesionalen elkargo ofizialak, lurraldeko kuadrillak eta udalerrak eta hainbat erakunde, hala nola Landa Inguruneko Emakumeen Sarea, Solidaridad Enfermera erakundea, Secot, Arabako Gurutze Gorria, Batekin, Arabako Pentsionistak, Saregune, Ubikare, Vivir con voz propia, Talento activo +65 eta Ascudean. Emilio Sola Gizarte Politiken foru diputatuak parte hartu du talde eragilearen bilera horretan.